

IRUDIAK/BIDEOAK

1 Argazkia eta bideoa.

Oro har, toki publikoetan egin daitezke argazkiak eta bideoak. Egile-eskubideak sortzen dira argazki eta bideoen egilearentzat, egindako unetik bertatik.

Eskatu baimena argazkietan edo bideoetan irteten diren pertsoneri.

2 Irudiak edo bideoak argitaratzea.

Ez da gauza bera argazkiak egitea eta bideoak grabatzea eta haien argitaratzea. Irudiak eta bideoak argitaratzeak ez du urratu behar haietan agertzen diren pertsonen intimitatea edo ohorea.

**ARGITARATU AURRETIK, PENTSATU GUSTATUKO
LITZAIZUKEEN ZEURE BURUA TANKERA
HORRETAKO LANEN BATEAN TOPATZEA.**

Argazkiak eta bideoak egiteko eta argitaratzeko, komenigarria da baimena eskatzea haietan agertzen diren pertsoneri.

